

453/2014 EBAZPENA, apirilaren 10koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Michol González Torres andrea Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente lanpostua betetzeko izendatzen da, eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko.

Aztertu dugu Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen urtarilaren 31ko 163/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko otsailaren 27ko EHAA (40. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarra aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak <<curriculum vitae>>-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Michol González Torres andrea deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Michol González Torres andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Bilbo Eskualdeko Fakultatibo Espezialista Familiako Mediku lanpostu funtzionalaren 9522 plazaren jabea dena, Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente lanpostua betetzeko hautatu da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetza langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- Michol González Torres andrea Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.


Hirugarrena.- Michol González Torres andrea zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko izendapena ondorioak izaten hasten den egunetik aurrera.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera."

Vitoria-Gasteizen, a 2014ko apirilean 10ean

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA

JON ETXEBERRIA CRUZ



Osakidetza
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR GENERAL